

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, ARABAKO ARTIUM FUNDAZIOAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA, 2013

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Arabako Artium Fundazioaren 2013ko ekitaldiari dagokion kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren fiskalizazio txostena mamitu du. Txostena aho batez onetsi dute Osoko kideek.

Txostenak kontularitza eta legezketasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu eta Fundazioaren kudeaketa hobetzeko gomendioak egiten.

Legea betetzeari dagokionez, HKEEk uste du Fundazioak bete duela 2013ko ekitaldian zehar ekonomia-finantza jarduera arautzen duen legezko arautegia. Iritzi honi bi salbuespen egin zaizkio eta txostenean bertan daude jasoak.

Honela, bada, kontratazioaren atalean HKEEk adierazi du Fundazioak zenbaitetan urratu egin duela ezargarrria zaion araudia, hala nola: Bi zerbitzu eta hornidura kontratutan ez dira DOUEn argitaratu kopuruagatik argitaratzea zegoen lizitazio iragarkiak; berebat, hornigai bat publikotasun eta lehiaketarik bideratu gabe kontratatu da.

Fundazioaren urteko kontuei dagokienez, HKEEk uste du alderdi esanguratsu guztietan Fundazioaren 2013ko abenduaren 31n ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena erakusten dutela; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion bere eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere; salbuespen bakarra dago eta txostenean bertan jaso da.

Urteko kontuei buruzko iritzian eraginik izan gabe, HKEEk komenigarri iritzi dio ondotik zehaztutako informazioa aintzat hartzeari, egoki interpretatu ahal izateko:

Fundazioaren 2013ko abenduaren 31ko ondare eta ekonomia egoerak funtzionatu ahal izateko ezinbestekoa da erakunde fundatzaileek aldi behin ekarpena egitea; ekitaldi honetan ekarpen horiek Fundazioaren urteko diru-sarreraren % 73 egin dute.

Halaber, HKEEk barne kontrolari eta kudeaketa prozedurei buruzko hainbat irizpen mahairatu ditu aurrekontu, kontabilitate, langileria eta kontratazioari dagozkion ataletan.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia
Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas